

Jose Mari Alberro

“Jendeak ez ditu ezagutzen sagardoaren sekretuak”

Txotx garaiak, San Sebastian egunaren inguruan hasi eta udaberriko lehen ilargi betea artean irauten du. Garai honetan, zer hobe Astigarragako Sagardo Etxea ezagutzea baino? Hala, Jose Mari Alberro, Sagardun Partzuergoko kudeatzaileari elkarrizketa egitea bururatu zaigu. Jose Mari 2003an hasi zen lanean Sagardo Etxean. Hona hemen kontatu dizkigunak.

Zure lana gustatzen al zaizu?

Bai, asko.

Zenbat ordu ematen dituzu lanean? Zenbat langile zarete?

Bederatzi ordu gutxi go-
rabehera, baina txotx
denboraldian gehiago iza-
ten dira. Urtean zehar hi-
ru langile aritzen gara,
baina txotx boladan lau
edo bost.

**Nori eta zergatik bururatu zi-
zaizuen Sagardo Etxea mar-
txan jartzea?**

Astigar Kultur Taldearen
egitasmoa izan zen, Asti-
garraga oso lotuta dagoe-
lako sagardoaren kultura-
rekin.

**Definitu ezazu sagardoa zer
den.**

Sagardoa irakindako sa-
gar zukua da. Irakite edo
fermentazio alkoholiko-
aren eraginez, heldutako
sagarraren zuku edo muz-
tietik sortzen den edaria
da sagardoa.

Non sortu zen sagardoa?

Jatorriari buruzko teoria
eta iritzi asko dago. Gaur
egun sagardoa izenez eza-
gutzen dugun edaria, di-
rudienez behintzat, Eus-
kal Herria eta Normandia
arteant sortu zen. Hortik
Inglaterrara, Asturiasera
eta Europa erdialdera za-
baldu zen.

**Gaur egun zenbat tolarre-sa-
gardotegi daude Astigarra-
gan?**

Hemezortzi inguru.

Orain, txotx garaia dela eta,



**telebistan, egunkarietan...
agertzen ari zara. Gu ere el-
karrizketa bat egiten ari ga-
tzaizkizu. Gustuko al duzu?**

Museoa eta Astigarragako
publizitatea egiteko bai,
baina nire burua telebis-
tan ikusteko ez.

**Museoan duzuen sagarra non-
dik ekartzen duzue?**

Sagardo-Etxeko sagas-
tian biltzen dugu, iraila
eta azaroa artean.

Zenbat sagar mota daude?

Euskal Herrian 90 mota
daude, eta mundu osoan
5.000 baino gehiago.

**Nori zuzenduta dago Sagardo
Etxea?**

miliei, turistei... sagardo-
gintza gogoko duten guz-
tiei.

**Animatu ezazu jendea Asti-
garragara eta bertako Sagar-
do Etxera etor dadin.**

Jendeak Astigarraga eta
sagardotegiak ezagutzer
ditu, baina bertako sekre-
tua ez du ezagutzen, eta
horretarako, zer hobe sa-
gardo etxera etortzea bai-
no? Sagardo Etxeak sagra-
rra eta sagardoarekin lo-
tura duen guztia ezagu-
tzeko aukera emango di-
zue, sagarraren ezauga-
rrietatik hasi eta nekaza
kulturan erreferentzia na-
gusia den sagardo ekoiz-
peneraino.

